



Eman hegoak euskarari



Campus nobelak gure literaturan

Tom Sharpe edo David Lodge irakurriz deskubritu genuen campus nobela

JON KORTAZAR



Nobela bi heldu zaizkit batera nire irakurketa mahaira, eta unibertsitateko bizitza aipatzen da bietan. Bata gaztelaniaz da, Ana Merinoren 'Amigo' nobela; eta euskarazkoa, Kirmen Uriberen 'Izurdeen aurreko bizitza'. Egia esan, oso desberdinak dira biek egiten duten unibertsitatearen eta ikerketaren tratamendua.

Ana Merinoren kontakizuna zuzen-zuzena da campus nobela, bai protagonista eta baita espazioa ere, neurri handia baitean, unibertsitatearekin loturik baitaude. Bestelakoa da ikuspegi euskal nobelan. Autofikzioarekin loturik dagoenez, zehar bidez ageri da unibertsitate bizitza. Ikerketarekin lotuta dago Kirmen Uriberen narrazioa, eta unibertsitateak kontratatu badu ere, New Yorkeko liburutegian

kokatu du espazio nagusia idazleak bere lanerako.

Campus nobelak eta ironia

Campus nobelek ezaugarri nagusi bi dituzte: protagonistak irakasleak edo ikasleak dira unibertsitatean; eta espazioa, irakasgaiak irakasten diren munduan kokatu ohi da. Moldaketak, tonua eta teknikak, berriz, oso ugariak dira eta desberdinak kontakizun batean edo bestean.

Egia da Tom Sharpe edo David Lodge irakurriz campus nobela deskubritu genuenok irria eta sarkasmoa ditugula oroimean; irakasle eta ikasle aldrebesak, neurritz kanpoko joko berragarriak, desastre hutsak. Unibertsitate edo irakaskuntza munduaren kritika nagusitu da ildo horretan. Baina ez da bide bakarra. Badira unibertsitate

mundua beste bideekin lotuz landu duten nobelak, bai Euskal Herrian edo beste herrietan ere.

Ikasleak eta irakasleak

Unibertsitatean edo bere inguruetan gertatzen den eta burura datorkidan lehen nobela Ramon Saizarbitoriaren 'Egunero hasten delako' da. Eta gaiak ez du unibertsitatearen bizitzarekin lotura handirik: Hori bai, protagonista, Gisèle famatua, 68ko ondorengoko emakumea, unibertsitateko ikaslea da. Hala ere, nortasunaren hazkundearekin, 'Bildungsroman' generoarekin lotu dezakegu kontakizuna.

Irriarekin eta ironiarekin loturik dago, askoz hobeto ezagutzea eta berrargitaratzea mereziko lukeen Ur Apalategiren 'Gure Gauzak, S.A.', unibertsitatearen parodia ez ezik euskal kultura li-

terarioaren karrikatura egiten duen nobela umore mikatz ozpinduz hornitua. 'Roman a clé' bat ere bada. Giltzak ezagutu behar dira hil berria den idazlearen bizitza idazten ari den bekadunaren joan-etorriak ongi ulertzeko. Gure kultura munduko hainbat eta hainbat pertsona ageri dira moztorturik orrialde horietan. Nor nor den igartzea kontakizun ironiko horrek proposatzen digun bidaiaren plazer aitzakia besterik ez da, sakonean gizartearen kritika zabaldu baitzuen lana argitaratzeko arazoak izan zituen egileak.

Gizartearen arazoez loturik ageri dira, neurri berean, Mikel Hernández Abaituaren pertsonaiak, unibertsitateko irakasleak. 'Etorriko haiz nirekin?' (1991) eta hamar urte gerorago argitaratu zuen 'Ohe bat ozeanoaren erdian' (2001) nobeletan argia da ETaren biolentziak sortu duen mina. Eragin hori agertu eta salatuz idatzi ditu nobelagileak lan biak. Azken nobela horretan indarkeria salatu duen unibertsitateko irakasle batek Italiara joan beharrean ikusten du bere burua. Eta bidean doan

bitartean bere barnean kontaktzen ditu deserrira daraman erabakiaren arrazoiak. Hernández Abaituaren kontakizun mundua beti egon da gizarte giroarekin oso lotua.

Italiara abiatzen da baita ere Lourdes Oñederraren 'Eta emakumeri sugeak esan zion' (1999) nobelako protagonista, irakasle emakumea bere barne gatazka pertsonala argitu beharrean.

Campus nobelaren espazioa

Unibertsitateko espazioa nagusitu da Bernardo Atxagaren 'Nevadako egunak' (2013) nobelan, eta bertan euskal sistema literarioaren globalizazioa aipatu du egile asteasuarrak, bere familiarekin Renoko Unibertsitatean egin zuen egonaldia kontatu digunean. Egileak hain gustuko duen piezen teknika erabiliz eta genero desberdinak batuz eskaini digu mundu literario oso bat. Liburuk denetarik du. Bidaia egunerokoa da, oroimen pertsonalaren gordeleku, Nevadako paisaiaren arkeologia, izuari eta desertuari buruzko nobela simbolikoa, ikerketa nobela polizikoa... Azken batean, Atxagaren fabulazio ahalmenaren ispilua.


Alegiak birsortuz

KARLA FERNÁNDEZ DE GAMBOA VÁZQUEZ

Jesus Mari Olaizola Lazkanok, 'Txiliku' goitizenez ezagunak, askotan aitortu du ahozko literaturaren miresle dela, eta Elkar argitaletxeak kaleratu berri duen 'Zozo ergelak eta azeri gaiztoa' mirespen horren adierazgarria da. Liburuan bertan azaltzen den moduan, Txiliku bi herri-ipuinetan oinarritu da kontakizun hau sortzeko: 'El alcaraván y la zorra' (M^a Angustias Nuevo Marcosek 2003an jaso) eta 'Azeria eta elurra' (Jose Mari Larreak 1988an argitaratua azkenekoz 'Ixtorio-misterio andana bat' liburuan). Haiek bezala, idazle zarautzarraren liburu honek ere baditu alegien ezaugarri esanguratsuenak. Fabula honen pertsonaia nagusiak giza naturaren alderdien irudikapenak diren eta gizaki gisa hitz egiten duten animaliak dira: Xoxope eta Xoxopa zozo beldurti eta sineskorak, Lukianton azeri maltzur eta enbusteroa,

eta ugatz indartsu eta buruargia.

Xoxope eta Xoxopa zoriontsu bizi dira lorategi baten ereinotzean haien lau txitekin batera harik eta Lukiantonek, gezur eta engainuekin, zozokumeetako bi eramatea lortzen duen arte. Azeriaren iruzurkeriaz ohartzen direnean eta beste bi kumeak hazi eta hegan ikasi dutenean, zozok mendekua hartzea erabakiko dute eta, horretarako, ugatzari eskatuko diote laguntza. Mota honetako alegien trama sinplea dirudien arren, irakaspen moral inplizitua transmititzen dute, hau da, ideia abstraktu bat nahiko hitz gutxitan transmititzen dute, eta horregatik kontakizun konplexuak eta aberatsak dira, ezinbestekoak haurren heziketa literarioan.



**ZOZO ERGELAK
ETA AZERI
GAIZTOA**
TXILIKU/E.
MORENTE
Elkar. 44 orr.
10,60 euro

Txilikuren idazkeraren joritasuna eta kadentzia bikaina da kontakizuna ozen irakurtzeko. Era berean, Enrique Morenteren marrazki koloretsu eta dinamikoak bat datoz gertakizunen erritmo biziarekin eta pasarte batzuen umorea nabarmentzen dute. Hitz gutxitan, oso liburu gomendagarria da haurrei kontatzeko eta haiekin batera giza izaerari buruz hausnartzeko.

Karguen karga

ARANTXA URRETABIZKAIA



Ez dut kontu honetan esperientzia zuzenik, baina inguru zabalean ikusi izan dut ze sentikizun desberdin sentitzen duen batek kargu bat eskaintzen diotenean enpresan nahiz erakunde politikoetan. Batzuetan harri-dura, besteetan, ordea, luzaroan espero izan den zerbait da, bazen garaia, azkenean. Ondoren, batez ere eskaintza ustekabea helden denean, pertsona batek pentsa dezake handi gelditzen zaiola zeregina, ez dela karguak eskatzen duena betetzeko gauza izango. Azken puntu hau, nik ikusitakoaren arabera, gehiago gertatzen zaie emakumei gizonezkoiei baino.

Demagun eskaintza jaso duenak gainditu egiten duela karguak ematen dion beldurra eta erabakitzen duela baietz, onar-

tuko duela eskaintza. Kasu horretan behala pentsatuko du jasotakoa merezi zuela eta oso gutxitan galdetuko dio bere buruari izendapenaren nondik norakoa. Izendatu dute eta kito.

Bere kargua uztera behartzen dutenean, ordea, orduan bai, orduan hasiko da zergatiari bueltak ematen, haren orde jarri duten pertsonaren nondik norakoak aztertzen. Erabakia onetsiko du ala ez, baina kargudun bilakatu zutenean burutik pasatu ez zitzaizkion kontuak pasatuko zaizkio. Nori esker heldu da izendatu berria puntu horretara, zer esanahi du aldaketak. Zergatik ni, zergatik orain.

Kanpotik ikusita, karguek karga dakarte erantsita, zenbat eta kargu altuagoa orduan eta erantzukizun handiagoa eta, halere, gehien gehienak gustura ikusten ditugu zeregin horretan eta gutxi ematen du dimisioa. Gehienera jota ere, gorago igo nahi lukete, hurrengo mailara. Boterea zer den dastatu ez duenak nekez ulertuko du hori, baina botereak, hasi behetik eta erpinaraino, mendetasuna sortzen du, hasierako beldurrak galdu bezain laster, agintean dagoenak gustua hartzen dio botereari.

Edo gutxienez hori pentsatzen dugu sekula santan boterea dastatu ez dugunok.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

2 Bar Gloria

Nerea Ibarzabal Salegi. Susa

3 Azken etxea

Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

4 M. Ama Eme Ume

Estitxu Fernandez/Erika Lagoma. Elkar

EZ FIKZIOA

1 Mandamentu hipermodernoak

Iñigo Martinez. Elkar

2 Kurdistan argi bat ekialde hurbilean

Urtzi Urrutikoetxea. Elkar

3 Nikole biotzekua

Edorta Jimenez. Elkar

4 Gaueko eztabaidak

Agustin Arrieta. Erein